

“INTERESGARRIA DA KOSMODISEAK IKASLEEI ERABILTZEKO ESKAITZEN DIEN APLIKAZIO KOPURU ANITZA”



Gorka Matute | AITA LARRAMENDI IKASTOLA (<http://www.andoainkastola.net/web/default.php>)
BATXILERGOA

Gorka Matute, Andoaingo Aita Larramendi ikastolakoa, "Ze esaten" taldearen irakasle arduraduna da. Taldeak Kosmodisea 2009-2010 edizioko Fono etapan, Batxilergoko kategorian, puntuazio altuena eskuratu du.

Gorka Matutek dioenez, logikoki, ikasleek poztasun handiz jaso dute puntuazio hori eta "**ezustean**" harrapatu dituztela adierazi du. "*Nahiz eta oso gustura hartu duten parte, ez zuten lehen postua irabaztea espero; zalantzarik gabe, horrek ondorengo faseetarako motibazio osagarria eragingo die*".

Soinu-lana egiterakoan zer iruditu zitzaizuen egiten zailena?

- *Egia esan, neska-mutilek ez dituzte arazo gehiegi izan. Gaia azkar erabaki zuten eta berehala hasi zuten grabazioa.*

2009-2010 Kosmodisea edizioan parte hartzen ari zareten aldetik, orain arte, zer iruditu zaizue interesgarriena?

- *Ikasleek fase bakoitzean aplikazio desberdinak erabili ahal izatea lortu nahi dituzten helburuak betetzera iristeko. Neska-mutilek taldean lan egitearen garrantzia ulertzea ere garrantzitsua da eta proiektu honek modu horretan lan egitera bultzatzen ditu.*

Eta zeintzuk dira parte hartzerakoan izan dituzuen alde zail edo korapilatsuenak?

- *Ez dugu bereziki zaila izan den arazorik aurkitu. Une jakin batean, ikasleek pasahitz bat ahaztu zuten, baina arazoa berehala konpondu ziguten. Bestela, ikasleak erraz egokitu dira aplikazioetara eta talde-lanera.*